



Gipuzkoako aisia eta turismoaren kultur
informazio osoa.

- [Castellano](#)
- Euskera

Berriak

Zure berriak bidali eta zurekin harremanetan jarriko gara

1. [Hasiera](#)
2. Ekitaldiak / Bisitak eta Txangoak / Bisita Gidatuak
3. “Sagardogintzako artelanak” aldi baterako erakusketa eta dastaketa gastronomikoak

“Sagardogintzako artelanak” aldi baterako erakusketa eta dastaketa gastronomikoak

- [Datu orokorrak](#)
- [Antolatzailea](#)

Herria: Astigarraga

Lekua: Sagardoetxea

Hasiera: 07/12/2011

Bukaera: 11/12/2011

Sarrerak: 5,00 €

Ekitaldi gehiago [Sagardoetxea](#)

Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren Museoa

Kale Nagusia, 48. (20115) Astigarraga

Telefona: 943 550 575

Fax: 943 550 575

Web: <http://www.sagardoetxea.com/>

Email: info@sagardoetxea.com

Abenduko zubi honetan Sagardoetxean jardunaldi gastronomito-kulturala ospatuko dugu sagardogintzako artelanei buruzko aldi baterako erakusketa eta produktu gastronomiko

ezberdinen dastaketarekin. Sagardoaren kulturaz zentzumen guztiekin gozatzeko aukera emango duen esperientzia.

Hala, Sagardoetxeako bisita gidatuek sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko artelanen erakusketa ikusteko aukera eskainiko dute eta ohiko sagardo, muztio eta likore dastaketa eskaintzeaz gain, bisitariak sagardo berridun barrikoteak gaztaina eta sardin zaharrekin dastatzeko aukera izango dute.

"SAGARDOGINTZAKO ARTELANAK" ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Abenduko zubian sagardogintzarekin erlazionaturiko eskualdeko artista ezberdinen artelanekin osaturiko aldi baterako erakusketa ikusteko aukera izango da Sagardoetxean, sagardoa eta artea uztartuaz: egurrezko tailuak, eskulturak, ilustrazioak, argazkiak, margolanak, bitxiak, etb...

Erakusketa honek gure eskualdeko sagarra eta sagardoarekin erlazionaturiko aberastasun artistikoa ezagutzeko eta artelan ezberdinak sortzeko garaian sagardoaren kulturak duen garrantzia ezagutzeko aukera emango digu.

PRODUKTU GASTRONOMIKOEN DASTAKETA

Sagardoetxeako bisita osatzeko eta sagardo berriaren etorrera ospatzeko, sagardoaren uzta berridun barrikoteak eskeiniko ditugu Abenduko zubian gaztaina eta sardin zaharrekin lagunduta. Barrikoteak, lehen uztaren dastaketan dauka jatorria. sagardogileek barrikote bat betetzen zuten sagardo berriarekin eta senitarteko eta lagunen artean edaten zuten gaztaina eta sardin zaharrekin lagunduta.

Usadio horrek bizirik jarraitu gaur egunerarte du eta Abenduko zubi honetan esperientzia hau bizitzeko aukera eskeiniko dugu Sagardoetxean.

ORDUTEGIAK:

Abenduko zubian museoa egunero irekia egongo da.

- Abenduaren 3tik 10era: 11:00-13:30 • 16:00-19:30
- Abenduak 11: 11:00-13:30

TARIFAK:

5,00 € pertsonako (bisita eta dastaketa barne).

Ekitaldiaren Babesleen Loturak

[Sagardoetxea](#)



Bilaketa

[Laguntza](#) Esaldia dauka

[Iradokizunak](#) · [Info](#) · [Publizitatea](#) · [Gurekin harremanetan jarri](#) · [Legezkoa](#) · [kreditoak](#) · [SiteMap](#)